



3.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 2015-2018 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa, Eusko Jaurlaritzak egin dituen aurreikuspenak, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarreren aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

3.1.- Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

3.1.1. taula.- NDF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak Cuadro 3.1.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2015	2016	2017	2018
BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)				
Mundu osoa / Total mundial	3,4	3,2	3,5	3,6
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	2,1	1,7	2,0	1,9
Estatu Batuak / Estados Unidos	2,6	1,6	2,1	2,1
Japonia / Japón	1,1	1,0	1,3	0,6
Erresuma Batua / Reino Unido	2,2	1,8	1,7	1,5
Eurogunea / Zona euro	2,0	1,8	1,9	1,7
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak/Países en desarrollo y mercados emergentes	4,3	4,3	4,6	4,8
KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	0,3	0,8	1,9	1,8
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak /Países en desarrollo y mercados emergentes	4,7	4,3	4,5	4,6
MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ)	2,6	2,3	4,0	3,9
COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)				

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (NDF).

Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI).

Uztailean NDFk munduko ekonomiarako egin zituen aurreikuspenen arabera, ekonomia %3,5 haziko da 2017an eta %3,6 2018an.

Nazioarteko ekonomia guztien arteko hazkundea bestela banatuko da: apirilko proiektioaren aldean, ekonomia batzuk egoera hobean daude; eta beste batzuk, okerragoan. Horrek hobekuntza haiek konpentsatu egiten ditu.

Eurogunearen ahalegin azkarra nabarmena izan da, eta haren pronostikoa gorantz berrikusia izan da. Era berean, Japonia eta Txina eta Asian suspertzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomiak gorantz berrikusi dira, maila orokorrago batean.

3.- PREVISIONES ECONÓMICAS

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2015-2018 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por el Ministerio español de Economía y Hacienda, las previsiones del Gobierno Vasco y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

3.1.- FMI

Las previsiones que el FMI realizó en julio para la economía mundial establecen unos crecimientos del 3,5% y el 3,6% para 2017 y 2018, respectivamente.

La distribución del crecimiento entre todas las economías ha cambiado: en comparación con la proyección de abril, algunas economías están mejor, y otras, peor, lo cual compensa las citadas mejoras.

Un desempeño destacable por su celeridad es el de la zona del euro, cuyo pronóstico se ha revisado al alza. Pero también, se han revisado al alza los casos de Japón, China y las economías emergentes y en desarrollo de Asia a nivel más general. Observamos asimismo



Halaber, hobekuntza nabarmenak atzeman dira Europan suspertzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomietan eta Mexikon.

Zer dago monetaren beste aldean? Nazioarteko hazkundearen ikuspuntutik, beheranzko berrikuspenik garrantzitsuena Estatu Batuen izan da. Datozen bi urteetan, haren hazkundera epe luzeagoko hazkunde potentzialeko tasaren gaineratik mantendu beharko litzateke, baina %2,1era murriztu dira 2017 eta 2018ko itxaropenak, zeren eta, dirudienez, epe laburrean politika fiskal hedakorra aplikatzeko aukerak apirilean espero zen baino txikiagoak baitira. Halere, zifra hori askoz handiagoa da 2016an izandako %1,6 baino. Aurten ere Erresuma Baturako proiektzioa txikiagoa da, eta urtearen hasieratik hona ekonomiaren ahuleziaren isla da. Oraindik ez dago argi "brexit"-ak Erresuma Batuan izango duen behin betiko eragina.

Dena den, globalki aztertuta, azken datuek erakusten dute azken hamarkadan nazioarteko ekonomian izandako susperraldi sinkronizaturik handienaren aurrean gaudela. Nazioarteko merkataritzaren hedapena ere goratu da, eta espero da datozen bi urteetan merkataritzaren kopuruak azkarrago haziko direla nazioarteko produktua baino.

Halere, oraindik badituzte ahulguneak sarrera ertain eta txikiko herrialdeek, zehazki lehen gaien esportatzaileek. Izan ere, truke terminoen kontrakziora egokitzen jarraitzen dute. Latinoamerikako herrialdeak ahalik eta hazkunderik onenaren alde saiatzen ari dira, eta eskualde horretarako datozen bi urteetarako proiektzioak jaitsi dira. Aurten, Saharaz azpiko Afrikaren hazkundera iaz baino handiagoa izango da. Halere, ia ez du gaintzen hazkunde demografikoaren tasa; horrek berekin dakar biztanleko diru sarrera gelditzea.

Emaitzak gaur egun proiektatzen ari garen baino hobekak edo okerrak izan litezke. Epe laburrean, gerta daiteke hazkundera are indartsuagoa izatea Europa kontinentalean, arrisku politikoak arindu baitira. Ikuspuntu negatibotik begirata, suspertzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomia ugari ari dira kapitalak tasa mesedegarritan erakartzen, eta horrek berekin ekarri dezake geroago ordainketa balantzak iraultzea. Tentsioak gerta litezke, baldin eta ekonomia aurreratuetako

mejoras notables en las economías emergentes y en desarrollo de Europa y en México.

¿Qué muestra la otra cara de la moneda? Desde la perspectiva del crecimiento mundial, la revisión a la baja más importante es la de Estados Unidos. Durante los dos próximos años, su crecimiento debería mantenerse por encima de la tasa de crecimiento potencial a más largo plazo, pero se ha recortado a 2,1% los pronósticos tanto de 2017 como de 2018 porque las probabilidades de que se aplique una política fiscal expansiva a corto plazo parecen más lejanas de lo que estimamos en abril. Aun así, esta cifra es muy superior al deslucido 1,6% registrado en 2016. La proyección para el Reino Unido este año también es menor y refleja el desempeño anémico de la economía en lo que va del año. El impacto definitivo del brexit en el Reino Unido aún no está claro.

Ahora bien, globalmente, los últimos datos apuntan a la reactivación sincronizada más amplia que ha experimentado la economía mundial en la última década. La expansión del comercio internacional también ha repuntado y se proyecta que los volúmenes del comercio crecerán más rápido que el producto mundial en los dos próximos años.

Pero persisten focos de debilidad entre los países de mediano y bajo ingreso, en particular en los exportadores de materias primas que continúan adaptándose a la contracción de los términos de intercambio. Los países latinoamericanos continúan luchando con un crecimiento subóptimo, y se han recortado las proyecciones para la región para los dos próximos años. Este año, el crecimiento de África subsahariana será más alto que el del año pasado, pero aun así apenas supera la tasa de crecimiento demográfico y eso implica que el ingreso per cápita se está estancando.

Los resultados podrían ser mejores o peores de lo que proyectamos actualmente. A corto plazo, se plantea la posibilidad de que el crecimiento resulte aún más pujante en Europa continental, ya que los riesgos políticos se han atenuado. Pero del lado negativo, muchas economías emergentes y en desarrollo vienen captando capitales a tasas favorables, lo cual las expone a posibles vuelcos de balanza de pagos más adelante. Podrían surgir tensiones si los bancos centrales de las economías



banku zentralak moneta politika murriztailegoen alde egiten jarraitzen badute, azken hilabeteetan kasu batzuetan antzeman den bezala. Azpiko inflazioaren presioa txikia da ekonomia aurreratuetan, eta, adierazleen arabera, epe luzeagoko inflazio itxaropenak helburuetatik harago doaz. Hori dela eta, banku zentralak zuhurtziaz jokatzeko jarraitu beharko lukete, uneoro jasotzen dituzten datuei erreparatuta, bai eta behar baino goizago murriztaileak izango diren baldintza finantzarioen arriskua arindu ere.

Politika propioak erabilia, azken boladan Txinako igo egin zuen hazkunde tasa, eta 2017 eta 2018rako pronostikoa 0,1 eta 0,2 puntu portzentual goratu da, hurrenez hurren, %6,7 eta %6,4raino. Hazkunde horren beste aurpegia kreditua azkar eta etengabe hedatzea da, finantzen egonkortasunari arriskuak ekarrita. Hortaz, Txinako kartera berankorrei aurre egin eta ikuskapen finantzarioa koordinatzeko berriki hartutako neurriek adorea ematen dute.

Azkenik, epe labur eta ertainean neurri eta erantzun protekzionisten mehatxua handia da oraindik, bai eta arrisku geopolitikoaren mehatxua ere.

Nahiz eta gaur egungo panorama argitu, epe luzeagoko hazkunde pronostikoak ez dira hain itxaropentsuak maila historikoen aldean, eta epe luzeagoko hazkunde apal batek ere arriskuak ekarriko ditu. Ekonomia aurreratuetan, sarrera erreal ertainak gelditu egin dira, eta desparekotasuna hainbat hamarkadatan areagotu egin da. Langabezia jaitsita ere soldadak ez dira asko hazi. Horrenbestez, etengabe geldoa den hazkundeak bizi mailak hobetzea eragotzi ez ezik tentsio sozialak larriagotzeko arriskua ekarri ere egiten du, jadanik hautesle multzo batzuk politika ekonomiko isolazionistagoen alde egitera bultzatuta. Suspertzen ari diren ekonomietan, aitzitik, sarrera maila nabarmen handitu da, bai eta diru sarreraren banaketaren ikuspuntutik apenas mesedetuta ateratzen diren biztanleria taldeentzat ere, nahiz eta oro har desparekotasuna ekonomia aurreratuetan baino nabarmenagoa izan.

avanzadas continuaran inclinándose por adoptar políticas monetarias más restrictivas, como se ha observado en algunos casos durante los últimos meses. La presión de la inflación subyacente es baja en las economías avanzadas y los indicadores no dan indicios de que las expectativas inflacionarias a más largo estén trepando más allá de las metas; por ende, los bancos centrales deberían seguir actuando con cautela, guiados por los datos que vayan recibiendo, y mitigar el riesgo de condiciones financieras prematuramente restrictivas.

Gracias a la adopción de políticas propicias, China elevó en los últimos tiempos la tasa de crecimiento, y el pronóstico para 2017 y 2018 se ha incrementado en 0,1 y 0,2 puntos porcentuales, respectivamente, a 6,7 y 6,4%. Pero la contracara de ese aumento es una expansión del crédito rápida e ininterrumpida, con los consecuentes riesgos para la estabilidad financiera. Por lo tanto, las medidas recientes adoptadas por China para hacer frente a las carteras en mora y coordinar la supervisión financiera son alentadoras.

Por último, la amenaza que representan las medidas y las reacciones proteccionistas sigue siendo destacada a corto y mediano plazo, y lo propio ocurre con los riesgos geopolíticos.

Aunque el panorama actual se ha despejado, los pronósticos de crecimiento a más largo plazo no son tan prometedores en comparación con los niveles históricos, y un crecimiento anémico a más largo plazo también conlleva riesgos. En las economías avanzadas, los ingresos reales medianos se han estancado y la desigualdad recrudesció a lo largo de varias décadas. Incluso con el desempleo en retirada, los salarios no han aumentado mucho. Por lo tanto, un crecimiento persistentemente lento no solo impide que mejoren los niveles de vida, sino que también plantea el riesgo de exacerbar tensiones sociales que ya han empujado a algunos electorados hacia políticas económicas más aislacionistas. En las economías emergentes, por el contrario, el nivel de ingresos ha aumentado sustancialmente, incluso para los segmentos de la población poco favorecidos en términos de la distribución del ingreso, a pesar de que la desigualdad es en general más marcada que en las economías avanzadas.



Gaur egun ziklo ekonomikoak bizi duen goranzko faseak agintariei aukera bat ematen die hazkundera gelditzen ari diren epe luzeko indar batzuei aurre egiteko. Egiturazko erreforma egokiak aplikatuz gero, herrialde guztien produktu potentziala handitu daiteke, batez ere erreforma horiek hazkundera errazten duten politika fiskalez babestuta badaude, hala nola azpiegitura produktiboan egin ohi den inbertsioa, betiere aurrekontu publikoak horretarako aukera ematen badu. Gainera, biztanleengan inbertitzea kritikoa da, oinarriko heziketan edo trebakuntzan egin edo lanerako berrorientazioan egin. Ekimen horiei esker, lan merkatuek ekonomiaren eraldaketaren aurrean duten erresilientzia handituko da eta, aldi berean, produktu potentziala suspertuko dute. Ekonomiak globalizaziora egokitzen lagundu ditzaketen politikazko neurri berberak beharrezkoak dira, oro har, teknologiak eta automatizazioak dakartzan erronkei aurre egiteko.

Lankidetzaren multilateral indartzea arrakastarako beste faktore kritiko bat da, nazioarteko merkataritza, egonkortasun finantzarioa, enpresen tributazioa, klima, osasuna eta gosetearen aurkako borroka bezalako esparruetan. Herrialde baten erabakiek nazioarteko eragin sakona dutenean, norberarentzako abantailetan bakarrik oinarritutako politikak eraginik gabeak dira, kasurik onenean, eta denentzat erabat kaltegarriak, kasurik okerrenean.

3.2.- ESPANIAR ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA 2017-2020 EPEALDIRAKO

Aurreikuspen makroekonomikoak Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentek abalatu ditu, kasu exogenoak eta definitutako politikak oinarri hartuta.

Aurreikuspenen arabera, 2017an BPG errearen hazkunde erritmoa moderatu egingo da, %2,7raino, eta, gainera, 2018 eta 2019an desazelerazio txiki bat gertatuko da, bi hamarretan eta hamarren batean, hurrenez hurren, %2,5 eta %2,4raino; azken tasa hori 2020an mantenduko da. Proiekzio horien oinarriak dira lan merkatuaren hobekuntza prozesua baldintza finantzario mesedegarri batzuetan luzatzea eta konfiantza hobetzea; hazkunde eredia orekatua eta enplegu

La actual fase ascendente que está atravesando el ciclo económico ofrece a las autoridades una oportunidad ideal para hacer frente a algunas de las fuerzas a largo plazo que están enfriando el crecimiento. La aplicación de reformas estructurales adecuadas puede incrementar el producto potencial de todos los países, sobre todo si están respaldadas por políticas fiscales que propician el crecimiento, como por ejemplo la inversión en infraestructura productiva, siempre que lo permita el presupuesto público. Por añadidura, la inversión en la gente es crítica, ya sea a través de la educación básica y la capacitación o la reorientación laboral. Esas iniciativas realzarán la resiliencia de los mercados laborales frente a la transformación de la economía y, a la vez, estimularán el producto potencial. Las mismas medidas de política que pueden ayudar a las economías a adaptarse a la globalización son, en términos amplios, necesarias para superar los retos que plantean la tecnología y la automatización.

Fortalecer la cooperación multilateral es otro factor crítico para la prosperidad, en ámbitos tan variados como el comercio internacional, la estabilidad financiera, la tributación de empresas, el clima, la salud y la lucha contra las hambrunas. Cuando las decisiones de un país tienen un profundo impacto internacional, las políticas basadas únicamente en la ventaja propia son, en el mejor de los casos, ineficientes, y en el peor, sumamente perjudiciales para todos.

3.2.- CUADRO MACROECONÓMICO DEL ESTADO ESPAÑOL PARA EL PERIODO 2017-2020

Las previsiones macroeconómicas han sido avaladas por Autoridad Independiente de Responsabilidad Fiscal (AIReF) sobre la base de los supuestos exógenos y de las políticas definidas.

Las previsiones reflejan una moderación del ritmo de crecimiento del PIB real en 2017, hasta el 2,7%, seguida de una ligera desaceleración adicional en 2018 y 2019, de dos y una décima, respectivamente, hasta el 2,5% y el 2,4%, manteniéndose esta última tasa en 2020. Estas proyecciones se sustentan en la prolongación del proceso de mejora del mercado laboral, en unas favorables condiciones financieras y en la mejora de la confianza, presentando un patrón de



sortzailea da, proiektzioaren epe osoan barruko nahiz kanpoko eskarian oinarrituta.

Hazkunde ereduak erakusten du barruko eskariaren bizitasuna sendoa dela, hazkundearen eragile nagusia izanik; datorren urtetik aurrera, BPGaren igoerari egiten dion ekarpena 1,1 puntu portzentualetan egonkortuko da, proiektzioaren epea amaitu bitartean. Bestetik, kanpoko eskari garbiak ekarpen positiboak egingo ditu: puntu erdia aurten eta lau hamarren datorren urtean, eta pixka bat moderatuago 2019 eta 2020an (0,3 puntu portzentual, bietan).

Barruko eskariaren osagaien artean, kontsumo pribatuaren sendotasunak eutsi egingo dio. Espero da desazelerazioa 2017rako sei hamarrenkoa izatea, %2,6rainokoa, eta 2018tik aurrera hazkunde erritmoa pixkanaka moderatzea, aurreikuspen epearen amaieran %2aren inguruko tasetara iritsi arte. Desazelerazioaren arrazoi nagusia da familien errenta errealak bizitasun txikiagoa izatea, enplegu sorrerak intentsitate erlatibo txikiaren testuinguru batean, eta azken urteetan hazkunde ekonomikoa bultzatzen lagundu duten faktore batzuk lehengo egoerara itzultzea (petrolioaren prezio txikiak eta EBZren pizgarri monetarioak). Familien aurrezpen tasa pixkanaka gora joango da, krisiaren aurreko mailara iritsita.

Inbertsioak bizia izaten jarraituko du, eta 2017 eta 2018an erritmo moderatuagoetan haziko da, eta 2019tik aurrera indarberritu egingo da, kontsumo pribatuaz eta ondasun eta zerbitzuen esportazioaz espero den hazkundearekin, enpresen aldeko itxaropenekin eta interes tasa txikien testuinguruarekin batera. Osagaien arabera, ekipoko eta aktibo landatuetako inbertsioak hedatzen jarraituko du, eta hazkunde erritmoa moderatuko da lehendabiziko bi urteetan eta azelerazio arin bat izango du 2019tik aurrera, proiektzio epearen amaieran %4ko tasetara iritsita. Bestetik, eraikuntzako inbertsioaren hazkundera pixkanaka areagotuko da, 2020an %3,4ra iritsi arte.

Jardueraren bizitasun handiagorekin batera, aurreikusita dago enpleguaren sorrera erritmoa moderatzea, nahiz eta sendoa izan eta

crecimiento equilibrado y generador de empleo, apoyado tanto en la demanda nacional como en la externa durante todo el horizonte de proyección.

El patrón de crecimiento muestra la consolidación del dinamismo de la demanda nacional, que constituye el principal motor del crecimiento, estabilizándose su contribución al avance del PIB a partir del próximo año en 2,1 pp hasta el final del periodo de proyección. Por su parte, la demanda externa neta registra contribuciones positivas, de medio punto este año y de cuatro décimas el próximo, y ligeramente más moderadas en 2019 y 2020 (0,3 pp en ambos).

Entre los componentes de la demanda nacional, el consumo privado se mantendrá robusto, proyectándose una desaceleración de seis décimas en 2017, hasta el 2,6%, y una moderación gradual en el ritmo de crecimiento a partir de 2018, hasta alcanzar tasas próximas al 2% al final del periodo de previsión. Esta desaceleración se debe, principalmente, al menor dinamismo de la renta disponible real de las familias, en un contexto caracterizado por una menor intensidad relativa en la creación de empleo y una paulatina reversión de algunos de los factores que han coadyuvado a impulsar el crecimiento económico en los últimos años, como los reducidos precios del petróleo y los estímulos monetarios del BCE. La tasa de ahorro de los hogares se incrementará progresivamente, convergiendo a los niveles previos a la crisis.

La inversión continuará dinámica, creciendo a ritmos más moderados en 2017 y 2018 y ganando impulso a partir de 2019, en línea con el crecimiento esperado del consumo privado y de las exportaciones de bienes y servicios, las favorables expectativas empresariales y el contexto de reducidos tipos de interés. Por componentes, la inversión en equipo y activos cultivados mantendrá la senda expansiva, presentando cierta moderación del ritmo de avance en los dos primeros años y una suave aceleración a partir de 2019, alcanzando tasas del 4% al final del horizonte de proyección. Por su parte, la inversión en construcción intensificará gradualmente su crecimiento, hasta situarse en el 3,4% en 2020.

En línea con el menor dinamismo de la actividad, se prevé que el ritmo de creación de empleo se modere, si bien seguirá robusto y



aurreikuspen epe osoan %2,5eko tasetara igotzen jarraituko duen. Horrek aukera emango du 2019aren amaieran krisiaren aurreko okupazio mailara iristeko, hau da, hogeit mila okupaturen kopurura. 2016aren amaieratik 2020aren amaierara bitartean, ia bi milioi lanpostu sortuko dira; 2020aren amaieran ia egungo serie historikoko biztanle okupatuaren maila gorenera iritsiko da. Langabezia tasak pixkanaka jaisten jarraituko du, 2020aren amaieran biztanle aktiboaren %11,2ra iritsi arte, hau da, 2013an lortutako maximoaren 16 puntutik behera.

Okupazioaren eta BPGaren bilakaera horren ondorioz, itxurazko produktibitatearen hazkundera, lanaldi osoko okupatu baliokide bakoitzeko, pixka bat moderatuk da aurten eta datorren urtea, eta aztertutako epealdi osoan ia egonkortuta geldituko da. Aldi berean, eta lan merkatuaren beraren dinamika eta produktibitatearen eta soldaten bilakaera direla eta, lan kostu unitarioak %1 haziko dira 2017an eta %1,4 2018an; azken tasa hori hamarren bat igoko litzateke -%1,5eraino- ondorengo bi urteetan.

Kanpoko sektoreari dagokionez, kanpoko eskari garbiak ekarpen positiboak egingo dizkio BPGaren igoerari epealdi osoan: 0,5 puntu portzental 2017an, 0,4 puntu 2018an eta 0,3 puntu 2019 eta 2020an. Ondasun eta zerbitzuen esportazio errealak %5 inguru haziko dira, lan kostu unitario erlatiboan moderazioa eta gure esportazio merkatuen bizitasun handiagoa direla-eta eragindako lehiakortasun indartsuagoaren ondorioz. Inportazioak esportazioenak baino tasa pixka bat txikiagoetan haziko dira, %4aren inguruan. Horiek horrela, kontu korronteko balantzearen saldoa superabitarioa izaten jarraituko du eta BPGaren %2 inguruan egongo da aurreikuspenaren epealdi osoan. 2012ko 2020ra bitartean, ekonomia espainiarrek 170.000 milioi euro sortuko ditu finantzaketa ahalmen gisa. Zenbateko horretatik, 80.000 milioi euro 2012 eta 2016 bitartean sortu ziren eta 90.000 milioi euro, aldiz, 2017tik 2020ra bitartean sortuko dira.

Espainiako ekonomiaren desorekak zuzentzeko prozesuan, prezioen egonkortasunak eginkizun garrantzitsua bete

creciendo a tasas del 2,5% durante todo el periodo de previsión. Ello permitirá recuperar a finales de 2019 los niveles de ocupación previos a la crisis, veinte millones de ocupados. Desde finales de 2016 hasta finales de 2020 se crearán casi dos millones de puestos de trabajo, alcanzando a finales de 2020 prácticamente el nivel máximo de ocupados de la actual serie histórica. La tasa de paro continuará reduciéndose progresivamente, hasta situarse en el 11,2% de la población activa a finales de 2020, nivel inferior en 16 puntos al máximo alcanzado en 2013.

Como resultado de la evolución prevista de la ocupación y del PIB, el crecimiento de la productividad aparente por ocupado equivalente a tiempo completo se moderará ligeramente este año y el próximo, permaneciendo prácticamente estabilizada durante todo el periodo de proyección. Al mismo tiempo, y derivado de la propia dinámica del mercado de trabajo, de la evolución de la productividad y de los salarios, los costes laborales unitarios crecerán el 1% en 2017 y el 1,4% en 2018, tasa esta última que se elevaría una décima hasta el 1,5% en los dos años siguientes.

En lo relativo al sector exterior, la demanda externa neta registrará aportaciones positivas al avance del PIB durante todo el periodo (0,5 pp en 2017, 0,4 puntos en 2018 y 0,3 puntos en 2019 y 2020). Las exportaciones reales de bienes y servicios crecerán a tasas próximas al 5%, impulsadas por las ganancias de competitividad derivadas de la moderación de los costes laborales unitarios relativos y del mayor dinamismo de nuestros mercados de exportación. Las importaciones crecerán a tasas ligeramente inferiores a las de las exportaciones, en el entorno del 4%. En este contexto, el saldo de la balanza por cuenta corriente seguirá siendo superavitario y se mantendrá próximo al 2% del PIB durante todo el periodo de previsión. Desde 2012 hasta 2020, la economía española generará 170.000 millones de euros de capacidad de financiación. De esta cantidad, 80.000 millones se generaron entre 2012 y 2016 y 90.000 millones se generarán en el período 2017-2020.

En el proceso de corrección de los desequilibrios de la economía española, la moderación de los precios ha jugado un papel



du. Dena den, aurreko urtearen amaieraz geroztik, inflazioa aldi baterako igo da, bai Espainian eta bai euroguneko gainerako ekonomietan, energiaren prezioek 2016ko epealdi berean izandako jaitsiera handiari lotutako oinarritzko efektuaren ondorioz.

2017tik aurrera, aurreikusita dago prezioek berriro hazkunde tasa positiboa izateak, petrolioaren prezioen igoeraren ondorioz. Kontsumo pribatuaren deflaktoreak gero eta urteko hazkunde handiagoak agertuko dituzte, hau da, aurreikuspenaren epealdiaren amaieran %2tik baino pixka bat beherago. Kontsumo publikoaren deflaktoreari dagokionez, aurreikusita dago haien hazkunde erritmoa pixkanaka handitzea, harik eta 2020an %1,2ko urteko tasa bat lortu arte; kapital finkoaren eraketa gordina gero eta gehiago desazeleratuko da, 2017an igo ondoren, %1,9raino proiektzioaren epealdiaren bukaeran. Ondasun eta zerbitzuen esportazioen eta inportazioen deflaktoreei dagokionez, aurreikusita dago 2017an %2,9 eta %3,5eko hazkundea izatea, hurrenez hurren; BPGaren deflaktorea %1,5 gehituko da.

Ikuspegi sektorial batetik begirata, Espainiako ekonomiaren finantzaketa ahalmenaren bilakaera ulertzen da, neurri batean, herri administrazioen defizita jaisteagatik. Izan ere, 2016an defizit hori BPGaren %4,5 izatetik (horren barruan, sektore finantzarioari emandako laguntza) BPGaren %0,5 izatera igaroko da 2020an. Familien kasuan, aurreikusita dago aurrezpen tasa pixkanaka igotzea proiektzioaren denbora osoan, batez besteko historikoarekin bat eginez. 2010ean maximo historikora iritsi zenetik 2016a amaitu bitartean, familien eta sozietate ez-finantzarioen zorra BPGaren 50 puntu portzentual baino gehiago jaitsi da, %166,1eraino, hau da, euroguneko batez bestekoaren antzeko mailaraino. Familien eta sozietate ez-finantzarioen zorrak datozen urteetan zuzentzen jarraituko du, eta espero da beste 30 puntu portzentual jaitea aurreikuspenaren denbora tartean, 2020an BPGaren %135 lortu arte. Edozein kasutan ere, sektore pribatuaren aurrerako martxak jarraituko du enpresa eta familieni kreditu berri gehiago ematearekin.

relevante. No obstante, desde finales del pasado año la inflación ha repuntado de manera transitoria, tanto en España como en el resto de economías de la zona euro, debido al efecto base asociado a la acusada caída de los precios energéticos en el mismo periodo de 2016.

A partir de 2017, se prevé que los precios retornen a tasas de crecimiento positivas, impulsados por el aumento de los precios del petróleo, anotando el deflactor del consumo privado incrementos anuales progresivamente crecientes, ligeramente inferiores al 2% al final del periodo de previsión. En cuanto al deflactor del consumo público, se prevé un incremento gradual de su ritmo de crecimiento, hasta alcanzar una tasa anual del 1,2% en 2020, mientras que el de la FBCF, tras repuntar en 2017, se desacelera progresivamente hasta el 1,9% al final del periodo de proyección. Para los deflactores de las exportaciones y de las importaciones de bienes y servicios se prevé un incremento en 2017 del 2,9% y del 3,5%, respectivamente, resultando un aumento del deflactor del PIB del 1,5%.

Desde una perspectiva sectorial, la evolución de la capacidad de financiación de la economía española se explica, en parte, por la reducción del déficit de las AAPP, que se prevé pase del 4,5% del PIB en 2016, incluida la asistencia al sector financiero, al 0,5% del PIB en 2020. Por su parte, el sector privado modera su capacidad de financiación a lo largo del periodo de previsión. En el caso de las familias, se prevé un incremento gradual de la tasa de ahorro durante el horizonte de proyección, convergiendo a su media histórica. Desde su máximo en el año 2010 hasta finales de 2016 la deuda de hogares y sociedades no financieras se ha reducido en más de 50 pp de PIB, hasta el 166,1%, un nivel similar a la media de la zona euro. La corrección de la deuda de los hogares y sociedades no financieras continuará en los próximos años y se espera que se reduzca otros 30 pp durante el periodo de previsión, hasta alcanzar en 2020 el 135% del PIB. El desapalancamiento del sector privado seguirá siendo en cualquier caso compatible con el incremento del crédito nuevo a empresas y familias.

3.2.1. taula.- Estatuko proiektzio makroekonomikoak
Cuadro 3.2.1.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2016	2017	2018	2019	2020
BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren Δ) / PIB Y AGREGADOS (Δ % REAL)					
Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1)	3,2	2,6	2,4	2,3	2,2
Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público	0,8	0,8	0,7	0,7	0,7
Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital	3,1	3,9	3,6	3,9	3,8
Barne eskaria/ Demanda interna	2,8	2,5	2,2	2,2	2,1
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios	4,4	6,5	5,4	4,8	4,6
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios	3,3	5,4	4,7	4,5	4,3
Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2)	0,5	0,5	0,4	0,3	0,3
Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto	3,2	3,0	2,6	2,5	2,4
PREZIOAK ETA KOSTUAK (Δ %) / PRECIOS Y COSTES (Δ %)					
BPGaren deflatoarea / Deflactor del PIB	-0,2	1,5	1,6	1,7	1,8
LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO					
Enplegua, guztira (bariaz. %tan) / Empleo Total (variac. en %)	2,9	2,8	2,6	2,5	2,5
Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa)	19,6	17,4	15,4	13,6	11,8

(1) Etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares

(2) BPGaren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

3.3.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak euskal ekonomiarako aurkeztutako eszenario makroekonomikoak hainbat egoera hartzen ditu oinarri gisa: munduko ekonomiaren bilakaera, euroak dolarraren aldean duen kanbio tasa, deflaktoreak, eta Europako Banku Zentralak aurreikuspenetan aztertutako epealdirako ezartzen dituen interes tasak.

3.3.- GOBIERNO VASCO

El escenario macroeconómico de la economía vasca presentado por la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco se basa en unos supuestos relativos a la evolución económica mundial, al tipo de cambio del euro frente al dólar, a los deflatores y a los tipos de interés que establezca el Banco Central Europeo para el horizonte temporal contemplado en las previsiones.

3.3.1. taula.- EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK
Cuadro 3.3.1.- PREVISIONES PARA LA ECONOMÍA VASCA

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	II tri./hir. 2017	III tri./hir. 2017	IV tri./hir. 2017	2017	2018
BPG / PIB	2,7	2,6	2,6	2,7	2,3
Azken kontsumoa / Consumo final	2,5	2,4	2,3	2,5	2,2
Kontsumo pribatua / Consumo privado	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Kontsumo publikoa / Consumo público	1,4	1,4	1,5	1,7	1,8
Kapital eraketa gordina / Formación bruta de capital	2,9	3,0	3,3	3,0	3,2
Barne eskariaren ekarpena / Aportación demanda interna	2,7	2,6	2,5	2,7	2,5
Kanpo saldoaren ekarpena / Aportación saldo exterior	0,0	0,0	0,1	0,0	-0,2
BPGaren deflatoarea / Deflactor PIB	1,2	1,4	1,4	1,2	1,8
Enplegua / Empleo	1,9	1,9	1,7	1,9	1,5
Langabezia tasa / Tasa de paro	11,3	11,1	10,9	11,2	10,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco.



Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAerako ekonomia aurreikuspenak eguneratu ditu, ingurune makroekonomikoaz eta EAEko ekonomiaren berezko adierazleez eskura dagoen azken informazioa erabiliz. Hain zuzen ere, etorkizuneko aurreikuspenen eguneraketak goranzko zuzenketa bat ekarri du kontuan hartu den denboraldi osorako. Esate baterako, 2017rako espero den batez besteko hazkunde tasa %2,7an kokatu da eta gehikuntza zertxobait apalduko da 2018an, %2,3era iritsi arte.

EAEko ekonomiaren inertziak goranzko zuzenketak ekarri ditu eszenategi makroekonomiko honetan barnean hartzen diren bi urteetarako aurreikusi diren hazkunde tasan. 2017. urtearen kasuan, lehen emaitzek iradokitzen zuten BPGaren gehikuntza tasa %2,2aren inguruan egongo zela, baina gaur eguneko informazioak emaitza hori dagoeneko aipatua izan den %2,7ra gorarazi du. 2018rako, aurreikuspen ariketa gutxi egin dira oraingoz, baina goranzko zuzenketa txiki bat egin da dagoeneko.

Zuzenketa horiek ez dute aldaketarik ekarri aurreikuspenaren funtsezko lerroetan. Izan ere, oraindik uste da barne eskaria izango dela EAEko ekonomiaren hazkundearen bultzagile nagusia. Agregatu horrek 2,7 puntu ekarriko dizkio BPGaren hazkundeari 2017an eta 2,5 puntu, berriz, 2018an. Familiek kontsumoan egingo duten gastuaren bizitasuna errenta erabilgarriaren gehikuntzan, lan merkatuaren hobekuntzan, prezioen igoera txikian eta kontsumitzaileen artean dagoen baikortasuneko testuinguruan oinarrituko da. Beste aldetik, kapitaleko eraketa gordinak hazkunde tasa oso esanguratsuak aurkeztuko ditu, interes tasa apalek, balioa galdu duen diru batek eta ekonomia testuinguru dinamikoago batean enpresarien igurikimen hobeez lagunduta. Kontuan hartu den epealdian, eszenategi makroekonomiko berrian barne eskariaren ekarpenak joera egonkorra erakutsiko du eta kanpo eskariak ekarpen hutsala egingo dio BPGari 2017an eta zertxobait negatiboa, berriz, 2018an.

Eskaintzari dagokionez, hazkunde orokorrak aurreikusten dira ekoizpen sektore guztietan, salbuespen bakarra lehen arloko jardueraren delarik, gorabehera handiak izaten baititu bere

Las previsiones económicas del País Vasco han sido actualizadas por la Dirección de Economía y Planificación a partir de la información disponible sobre el entorno macroeconómico y los indicadores propios de la economía vasca. Concretamente, la actualización de las perspectivas futuras ha supuesto una corrección al alza para todo el horizonte temporal contemplado. Así, para el año 2017 la tasa de crecimiento medio esperada se sitúa en el 2,7% y se prevé que el avance se ralentice ligeramente hasta el 2,3% en 2018.

La inercia de la economía vasca ha traído consigo una serie de revisiones al alza en la cifra de crecimiento prevista para los dos años que se incluyen en este escenario macroeconómico. En el caso del año 2017, los primeros resultados apuntaban a un incremento del PIB del entorno del 2,2%, pero la información más actual ha elevado ese resultado hasta el mencionado 2,7%. Para el año 2018, los ejercicios de previsión realizados son todavía escasos, pero ya se ha llevado a cabo una pequeña revisión al alza.

Esos cambios no suponen una variación en las líneas fundamentales de la predicción. Así, se mantiene que la demanda interna seguirá siendo el motor del crecimiento de la economía vasca. Este agregado aportará al crecimiento del PIB 2,7 puntos en 2017 y 2,5 puntos en 2018. El dinamismo del gasto en consumo de los hogares se cimentará en el incremento de la renta disponible, en la mejora del mercado de trabajo, en el bajo aumento de los precios y en un contexto de optimismo entre los consumidores. Por otra parte, la formación bruta de capital presentará tasas de crecimiento muy significativas y este agregado se verá favorecido por una situación de bajos tipos de interés, una moneda depreciada y mejoras en las expectativas de los empresarios ante un contexto económico más dinámico. En el horizonte temporal contemplado, en el nuevo escenario macroeconómico la aportación de la demanda doméstica describirá una tendencia estable, mientras que la demanda externa presentará una evolución de aportación nula al crecimiento del PIB durante 2017 y será ligeramente negativa en 2018.

Respecto a la oferta, se estiman crecimientos generalizados en todos los sectores productivos, con la única excepción de la rama de actividad primaria, que suele tener fuertes



bilakaeran. Nekazaritza eta arrantza biltzen dituen sektore horrek narriadura ezagutuko du kontuan hartu diren bi urteetan. Beste aldetik, industriaren aldakuntza tasa %2,5ean kokatuko da 2017an eta %2,7an, berriz, 2018an. Eraikuntzak hazkunde positiboak berreskuratu ditu eta aurreikuspen berriek hazkunde iraunkorra eta egonkorra iradokitzen dute datozen hiruhilekoetarako. Zerbitzuek ere bizitasuna eta hazkundearen finkapena erakutsiko dute. Hori horrela izanda, sektore horren batez besteko tasa %2,9ra iritsiko da 2017an. Hurrengo urtean zertxobait apalduko da eta %2,4an kokatuko da urteko batez bestekoan. Sektoreka eginiko analisi honetan ondorioztatzen denez, hazkundearen oinarriak industria eta zerbitzuak izango dira berriro. Bi sektore horiek egingo diote ekarpen handiena EAEko balio erantsi gordinaren hazkunderari.

Aurreikusi den ekonomia hazkundera eragin positiboa izango du lan merkatuan, enplegua areagotuko delako eta langabezia tasa murriztuko delako. Enpleguaren gehikuntza %1,9 izango da 2017an eta %1,5era jaitsiko da datorren urtean. Datu horiek esan nahi dute 16.600 lanpostu inguru sortuko direla aurten eta 13.400 inguru 2018an, gutxi gorabehera. Beste aldetik, langabezia tasa %11,2an kokatuko da 2017an eta %10,7ra jaitsiko da 2018an, urteko batez bestekoan neurtuta.

3.4.- GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Gipuzkoako ekonomiari dagokionez, 2018an inguruko ekonomien antzeko hazkundera espero da: barne produktu gordina %2,3 inguru haziko da termino errealetan, eta %4,1 inguru termino korranteetan.

oscilaciones en su evolución. Este sector de agricultura y pesca sufrirá, en principio, un deterioro en los dos años contemplados. Por otra parte, la variación de la rama industrial se situará en el 2,5% y el 2,7% en 2017 y 2018, respectivamente. La construcción ha recuperado crecimientos positivos y las nuevas perspectivas reflejan un avance sostenido y estable para los próximos trimestres. El sector de servicios también describirá signos de dinamismo y consolidación del crecimiento. De esta forma, sus tasas promedio de incremento se situarán en el 2,9% en 2017. Para 2018 se desacelerará ligeramente hasta el 2,4% de media anual. En este análisis sectorial se concluye que los pilares del crecimiento serán, de nuevo, las ramas industriales y de servicios. Ellas realizarán la mayor contribución al crecimiento general del valor añadido bruto vasco.

El crecimiento económico previsto tendrá efectos positivos en el mercado laboral, con un aumento en el empleo y un descenso de la tasa de paro. Se cifra el incremento del empleo en 2017 en el 1,9% y para 2018 la variación será del 1,5%. Estos datos supondrán la creación de 16.600 empleos aproximadamente en 2017 y de cerca de 13.400 empleos en 2018. Por otra parte, la tasa de desempleo se estima en el 11,2% en 2017, y llegará hasta el 10,7% en término medio para 2018.

3.4.- DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA

Por lo que se refiere a la economía guipuzcoana, en 2018 se estima un crecimiento similar al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 2,3% en términos reales y del 4,1% medido en términos corrientes.